DIÓCESIS DE SAN SEBASTIÁN

DONOSTIAKO ELIZBARRUTIA

# «DEJARNOS CONDUCIR POR ÉL»

# en el curso pastoral 2013-2014 urte pastoralean

# «BERAK GIDA GAITZALA»

# SUMARIO

I. INTRODUCCIÓN........................................................................ 4

II. EL MOMENTO ECLESIAL Y EL CONTEXTO SOCIAL
DEL CURSO PASTORAL 2013-2014 ............................................ 10

1. El momento eclesial ............................................................ 10
2. El contexto social ................................................................ 16
3. Agradecimiento y petición de colaboración ............................. 22

III. OBJETIVOS Y MEDIOS PARA EL CURSO PASTORAL
2013-2014. LA CARIDAD COMO ENTREGA ................................. 26

1. Compasivos, comprometidos con la justicia ................................ 26
Medios ................................................................................ 28
2. Reconciliados, constructores de la paz .................................... 30
Medios ................................................................................ 30
3. Creados, responsables de la creación ...................................... 34
Medios ................................................................................ 34

IV. CONCLUSIÓN y PROPUESTA ................................................. 36

# AURKIBIDEA

I. SARRERA ........................................................................................... 5

II. 2013-2014 URTE PASTORALEKO ELIZ BIZITZAKO UNEA
ETA GIZARTEKO GIROA ................................................................. 11

1. Eliz bizitzako unea ............................................................. 11

2. Gizarteko giroa ............................................................. 17
3. Esker ona eta lankidetza-eskaria ............................................. 23

III. 2013-2014 URTE PASTORALERAKO HELBURUAK ETA
BALIABIDEAK. KARITATEA ESKAINTZAREN IKUSPEGITIK .. 27

1. Errukiorrak eta justiziarekin konprometituak ............................ 27
Baliabideak........................................................................... 29
2. Adiskidetuak eta bakegileak ................................................ 31
Baliabideak........................................................................... 31
3. Kreazioko sorkari gara eta kreazioarekin arduratsu .................. 35
Baliabideak........................................................................... 35

IV. BUKAERA eta PROPOSAMENA .................................................... 37

# I. INTRODUCCIÓN

La apertura del curso pastoral 2013-2014 en nuestra Diócesis de San Sebastián, va a tener lugar a las puertas de la clausura del Año de la Fe, que fue convocado por Benedicto XVI, en el 50 aniversario de la apertura del Concilio Vaticano II (11-10-2012), y que tantas novedades y bienes espirituales ha traído a la Iglesia Católica.

La clausura del Año de la Fe, que el Papa Francisco presidirá en Roma en la Solemnidad de Cristo Rey (24-11-13), tendrá como broche de oro en nuestra Diócesis, ese mismo día por la mañana, la Santa Misa de clausura que celebraremos en la Catedral del Buen Pastor; y por la tarde, la «lectura continuada» de la Palabra de Dios que tendrá lugar en la Basílica de Santa María del Coro.

A lo largo del pasado curso pastoral hemos desarrollado diversas actividades relacionadas con el Año de la Fe, tanto en el ámbito de nuestras parroquias, unidades pastorales y arciprestazgos, como en el ámbito de las comunidades educativas y movimientos apostólicos. En la Catedral del Buen Pastor han tenido lugar una serie de conferencias a cargo de diferentes obispos, que nos han ayudado a reflexionar sobre el contenido de algunos documentos del Concilio Vaticano II. Todas estas actividades nos han ayudado a «recorrer la historia de nuestra fe»[1] y a poner nuestros ojos en Jesucristo, que «inicia y completa nuestra fe» (*Hb* 12,2). Porque en Jesucristo «encuentra su cumplimiento todo afán y todo anhelo del corazón humano».[2]

---

1. *Porta fidei*, 13.
2. *Ibid.*

# I. SARRERA

Fedearen Urtea bukatzera doan unean izango da 2013-2104 urte pastoralaren hasiera Donostiako gure Elizbarrutian. Eliza Katolikoari hainbat berrikuntza eta espirituzko mesede ekarri dion Vatikanoko II. Kontzilioa hasi zeneko 50. urteurrena zela-eta egin zuen Benedikto XVI.ak Fedearen Urterako deia.

Kristo Erregearen Festaburuan, 2013ko azaroaren 24an, emango dio Frantzisko Aita Santuak Fedearen Urteari amaiera Erroman. Gure Elizbarrutian, goiz hartan bertan izango du amaiera nagusia, Artzain Ona Gotzain-elizan ospatuko dugun bukaerako Meza Santuan; arratsalde hartan, berriz, Jainkoaren Hitzaren «etengabeko irakurketa» egingo da Koruko Andre Maria Basilikan.

Joan den Urte Pastoralaren barruan hainbat ekintza egin dugu Fedearen Urtearekin lotua zegoena, bai gure parrokia-, pastoral barruti- eta artziprestalde-arloan, bai heziera-elkarteen eta mugimendu apostolikoen arloan. Artzain Ona Gotzain-elizan hitzaldi-sorta bat izan da gotzain batzuen eskutik; haiek Vatikanoko II. Kontzilioko idazki batzuen edukia hausnartzen lagundu digute. Ekitaldi hauek guztiak lagungarri izan dira «gure fedearen historiari berriro begirada bat emateko»,[1] eta gure begiak Jesu Kristogan jartzeko, bera baita «gure fedearen iturburua eta betetzailea» (*Heb* 12, 2). Izan ere, Jesu Kristogan «aurkitzen dute beren betetzea giza bihotzeko gogo bizi eta irrika guztiek».[2]

---

1. *Porta fidei*, 13.
2. *Ibid*.

Nuestros afanes no pueden reducirse a los planes pastorales, pero dichos planes pastorales constituyen una ayuda inestimable para la escucha y el anuncio del Evangelio, así como para la tarea conjunta del servicio al que el Evangelio nos convoca. Es precisamente el servicio evangélico el eje del nuevo curso pastoral, tercero del Quinquenio Pastoral 2011-2016, cuyos objetivos generales aparecen recogidos en el Programa Pastoral «Dejarnos conducir por Él» (9-9-2011). Recordemos que el programa del Quinquenio Pastoral tiene tres apartados fundamentales: la oración, la caridad y la evangelización. En el curso pastoral 2011-2012 trabajamos el ámbito de la *oración*; en el curso pastoral 2012-2013 cultivamos el campo de la*caridad* como comunión, y en este curso pastoral 2013-2014, recorreremos el camino de la *caridad* como entrega. «La experiencia del amor de Dios, que se nos da por entero en su Hijo Jesucristo (*Jn* 13,1), nos lleva al ejercicio del amor al prójimo: a la caridad fraterna vivida en la Iglesia (comunión) y, desde la Iglesia, para el mundo (entrega)».[3] Somos conscientes de que la caridad *de* los cristianos es tal, si nace de la caridad *entre* los cristianos. Sabemos que una y otra provienen de la caridad de Cristo, por quien, con quien y en quien alabamos al Padre, en la unidad del Espíritu Santo, al hacer la oración de la Iglesia. No podemos cesar de orar, si queremos seguir amando al prójimo como nos ama Cristo, si queremos seguir sirviéndole en quienes más lo/nos necesitan.

En el Programa Pastoral «Dejarnos conducir por Él», la caridad como entrega abarca tres ámbitos: el de la justicia social, el de la reconciliación y el de la ecología. El Consejo Pastoral Diocesano (CPD) dedicó la asamblea del 2 de marzo de 2013 a reflexionar sobre los objetivos y los medios de estos tres ámbitos recogidos en otros tantos apartados. El 22 de junio, de ese mismo año, el CPD volvió a celebrar otra asamblea, en la que presenté a los consejeros unas propuestas

3 *Dejarnos conducir por Él.* Programa Pastoral 2011-2016 de la Diócesis de San Sebastián, pág. 35.

Gure ahaleginak ezin dira plangintza pastoraletara mugatu, baina plangintza pastoral horiek laguntza baliotsua dira Ebanjelioa entzun eta iragartzeko, baita Ebanjelioak guztion artean egitea eskatzen digun zerbitzu-lanerako ere. Ebanjelioarekiko zerbitzua da, hain zuzen, 2011-2016ko bosturtekoan hirugarrena dugun urte pastoral berriaren ardatza. Beraren helburu nagusiak 2011n argitara emandako «Berak gida gaitzala» izeneko Pastoral Egitarauan datoz aipatuak. Gogora dezagun, Bosturteko Egitarau Pastoralak oinarrizko hiru atal dituela: otoitza, karitatea eta ebanjelizazioa. 2011-2012ko urte pastoralean *otoitzaren* arloa landu genuen; 2012-2013koan *karitatearen* esparruan aritu ginen, elkartasunaren ikuspegitik begiratuta; eta 2013-2014ko honetan *karitatearen* alorra jorratu nahi dugu, eskaintzaren ikuspegitik. «Jainkoaren Seme Jesu Kristorengan osorik ematen zaigun Jainkoaren maitasun-esperientziak (*Jn* 13,1) lagun hurkoa maitatzera eragiten digu: Elizaren baitan bizitzen den senide arteko maitasunera (batasuna) eta hori, Elizatik, munduari ematera (eskaintza)».[3] Badakigu, *Kristauen* karitatea egiazkoa izango bada, kristauen *arteko* karitatetik sortua behar duela izan. Badakigu, bai bata bai bestea Kristoren karitatetik datozela, eta, hain zuzen, haren bidez, harekin eta harengan goresten dugula Aita, Espiritu Santuarekin batean, Elizaren otoitza egitean. Geure lagun hurkoa Kristok gu maite gaituen bezala maitatzen, eta gure behar handiena dutenengan Kristori zerbitzu egiten jarraitu nahi badugu, ezin diogu otoitz egiteari utzi.

«Berak gida gaitzala» izeneko Egitarau Pastoralean hiru alor hartzen ditu karitateak, eskaintza den aldetik: justizia soziala, adiskidetzea eta ekologia. Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluak (EPK) hiru alor hauen inguruko helburuak eta baliabideak aztertzen eman zuen 2013ko martxoaren 2ko batzarra, eta beste hiru ataletan bilduak gelditu ziren. EPKk urte honetako ekainaren 22an egindako beste batzar batean, proposamen zehatz batzuk aurkeztu nizkien kontseilariei, aurreko batzarrean

3. *Berak gida gaitzala*. Donostiako Elizbarrutiko Pastoral Egitaraua, 2011-2016, 35. or.

concretas a partir de las aportaciones recibidas en la anterior sesión. Pues bien, partiendo de las nuevas sugerencias de los consejeros en dicha reunión, así como de la consulta al Consejo Episcopal, durante los meses de verano, he podido concretar este Programa del curso pastoral 2013-2014, que comienza su andadura en un momento eclesial y en un contexto social muy concretos.

beraiek egindako ekarpenetan oinarriturik. Orain, bada, bigarren batzar horretan kontseilariek egindako iradokizun berriak eta, udaldiko hilabeteetan, Gotzain Kontseiluari egindako kontsultaren emaitzak kontuan harturik, eliz bizitzako une eta gizarteko giro oso berezietan hasiera izango duen 2013-2014 urte pastoralerako Egitaraua zehaztu ahal izan dut.

# II. EL MOMENTO ECLESIAL Y EL CONTEXTO SOCIAL DEL CURSO PASTORAL 2013-2014

Como hemos apuntado al principio, la Iglesia conmemora en el Año de la Fe el 50 aniversario de la apertura del Concilio Vaticano II, así como el 20 aniversario de la publicación del Catecismo de la Iglesia Católica. Además de ambas conmemoraciones, este Año de la Fe ha traído consigo dos acontecimientos sucesivos que han entrado a formar parte de la historia de la Iglesia: la renuncia de Benedicto XVI al ejercicio del ministerio petrino y la elección del Papa Francisco como sucesor de Pedro. Tenemos la sensación de estar viviendo un momento eclesial lleno de gracia, cuyas consecuencias a medio y largo plazo sólo Dios conoce, pero cuyo acontecer nos llena de alegría y de esperanza.

Esta alegría y esta esperanza, frutos de la acción del Espíritu Santo, están llamadas a engrasar el motor de nuestra caridad pastoral, de modo que día a día sigamos entregados con renovadas fuerzas al anuncio del Evangelio, trabajando para la erradicación de la pobreza en todas sus expresiones, tanto domésticas como a nivel mundial.

## 1. El momento eclesial

Tras su encíclica programática *Deus caritas est* (2005), el Papa Benedicto XVI escribió dos encíclicas más durante su fructífero pontificado. La primera de ellas estaba dedicada a la virtud teologal de la esperanza: *Spe salvi* (2007); y la última trataba sobre la virtud de la caridad: *Caritas in veritate* (2009), de especial actualidad para nosotros, teniendo en cuenta los objetivos que nos hemos marcado en nuestra Diócesis para este curso pastoral. Este pasado 29 de junio de 2013, solemnidad de los Apóstoles San Pedro y San Pablo, el Papa Francisco, ha dado a la Iglesia su primera encíclica, *Lumen fidei*, con la que

## II. 2013-2014 URTE PASTORALEKO ELIZ BIZITZAKO UNEA ETA GIZARTEKO GIROA

Hasieran aipatu dugunez, Fedearen Urtean Elizak Vatikanoko II. Kontzilioaren hasierako 50. urteurrena gogoratzen du, eta Eliza Katolikoaren Dotrina argitaratu zeneko 20. urteurrena. Oroipen horiez gainera, Fedearen Urte honek beste bi gertaera ekarri dizkigu bata bestearen ondoren: Benedikto XVI.ak Pedroren ministerioari dagokion jarduera uztea eta Pedroren ondorengotzat Frantzisko Aita Santua aukeratzea. Graziaz betea datorren eliz unea bizitzen ari garela nabari dugu; Jainkoak bakarrik daki zer-nolako ondorioak izan ditzaketen gertaera hauek epe erdira eta epe luzera; baina pozez eta itxaropenez betetzen gaituzten gertaerak dira.

Espiritu Santuaren ekintzaren fruitu diren poz eta itxaropen hauek gure karitate pastoralaren eragile izango dira, egunetik egunera indarberriturik ekin diezaiogun Ebanjelioaren iragarpenari, pobreziaren era guztietako azalpenak, bai gure artekoak bai mundu zabalekoak, beren sustraietatik desegiten lan eginez.

### 1. Eliz bizitzako unea

*Deus caritas est* (2005) bere entziklika programatikoaz geroztik, beste bi entziklika idatzi zituen Benedikto XVI.a Aita Santuak bere aitasantutzaldi emankorrean: lehenengoa itxaropenaren bertute teologalari eskainia, *Spe salvi* (2007); eta bigarrena karitatearen bertuteaz, *Caritas in veritate* (2009), guretzat gaur-gaurkoa gertatzen dena, kontuan izanik urte pastoral honetarako gure Elizbarrutian hartu ditugun helburuak. 2013 honetako ekainaren 29an, San Pedro eta San Paulo Apostoluen festaburuan eman zion Frantzisko Aita Santuak Elizari bere

completa la trilogía dedicada a las virtudes teologales, centrándonos en la cuestión de la fe.

«Sólo el amor es digno de fe» es el título que Hans Urs von Balthasar dio a uno de sus libros más conocidos, cuyo prólogo comienza con una pregunta: «¿Qué es lo cristiano en el cristianismo?». El Papa Francisco parece estar respondiendo a esta pregunta en cada una de sus intervenciones y con cada uno de sus gestos, desde aquella tarde del miércoles 13 de marzo en que, ante los hombres y mujeres de Roma, se mostró necesitado de la oración del pueblo, pidiendo la bendición de Dios para su Obispo.

Recordaréis que, tras la conmovedora renuncia de Benedicto XVI, os pedí en diversas ocasiones, que aceptáramos filialmente, en actitud de obediencia, al Papa que el Espíritu Santo diera a su Iglesia. Hoy, que conocemos ya al Papa Francisco, nos sentimos agradecidos ante los primeros pasos de su ministerio como Obispo de Roma, y nos unimos a toda la Iglesia en la oración por él, respondiendo a la petición en la que él tanto nos insiste.

¿Qué ecos está teniendo su ministerio entre nosotros, aquí en Gipuzkoa? A todas luces, positivos. Se acogen con gozo las palabras del Papa y, más allá de interpretaciones interesadas, parece que estamos ante un tiempo oportuno para vivir de modo siempre renovado, y para explicar adecuadamente la recíproca e indisoluble relación entre el Evangelio y el Magisterio; entre la Sagrada Escritura y la Tradición de la Iglesia; entre la Palabra del Buen Pastor y las palabras de los pastores de la Iglesia.

Como pastores que somos, a los obispos y a los sacerdotes nos toca estar atentos a la voluntad de Dios y a las necesidades de los cristianos a los cuales servimos en nuestros respectivos ámbitos de responsabilidad. En una afirmación audaz, el Papa Francisco nos ha recordado a los pastores que debemos tener «olor a oveja», y con no menos libertad se ha dirigido a todas las religiosas del mundo diciéndoles que «la consa-

lehenengo entziklika, *Lumen fidei*; honekin osatu egiten du bertute teologalei eskainitako hirukotea, fedea gai hartuta.

«Maitasunak bakarrik merezi du fedea», hori da Hans Urs von Balthasarrek bere liburu ezagunenetako bati jarri zion titulua. Galdera honekin hasten da liburu horren hitzaurrea: «Kristautasunean zer da kristau?» Badirudi Frantzisko Aita Santua galdera honi erantzuten ari dela bere mintzaldi bakoitzean eta egiten duen keinu bakoitzean; hala azaldu zen Erromako gizon eta emakumeen aurrean martxoaren 13 hartan, herriaren otoitzaren beharrean aurkitzen zela zioenean eta Jainkoari bedeinkapena eskatzean bere Gotzainarentzat.

Gogoan izango duzue, Benedikto XVI.aren kargu-uzte hunkigarriaren ondoren, behin baino gehiagotan eskatu nizuela, Elizako seme-alaba on bezala eta obedientzia-jarreraz onartu behar genuela, Espiritu Santuak Elizari emango zion Aita Santua. Gaur egun, Frantzisko Aita Santua ezagutzen dugun honetan, esker oneko sentitzen gara, Erromako Gotzain bezala bere ministerioa betez eman dituen lehenengo pausoen aurrean; eta bat egiten dugu Eliza osoarekin haren aldeko otoitzean, behin eta berriz egiten digun eskariari erantzunez.

Zer-nolako oihartzuna izaten ari da, hemen Gipuzkoan, Aita Santuaren jarduera? Argi eta garbi, oihartzun ona. Pozik onartzen dira beraren hitzak eta, ulerkera interesatuak alde batera utziz, garai egokian aurkitzen garela esan daiteke, beti modu eraberrituan bizi ahal izateko, eta Ebanjelioaren eta eliz Irakaskuntzaren artean dagoen lotura etenezina era egokian azaltzeko; Liburu Santuaren eta eliz Tradizioaren arteko lotura, eta Artzain Onaren Hitzaren eta eliz artzainen hitzen arteko lotura azaltzeko.

Artzain garen aldetik, Jainkoaren nahira eta kristauen beharretara erne egotea dagokigu gotzainoi eta apaizoi, horien zerbitzari baikara bakoitza geure arloan. Esaldi ausart batean, «ardi-usaina» izan behar dugula gogoratu zigun Frantzisko Aita Santuak; eta antzeko askatasunez esan zien munduko erlijiosa guztiei, «emakume sagaratua ama dela,

grada es madre, y no solterona». Esta forma tan directa y evangélica de expresarse, conlleva una llamada a la conversión y al despojamiento de nosotros mismos, de lo cual el mismo Santo Padre nos da un continuo testimonio.

En la Vigilia de Pentecostés, en el contexto de una Jornada con los movimientos apostólicos, las nuevas realidades de vida consagrada, las asociaciones y organizaciones laicales, el Papa Francisco dirigió una llamada formulando otra de sus más conocidas expresiones: «Prefiero una Iglesia accidentada por salir, que enferma por encerrarse». El significado de esta expresión parece bastante obvio: ha llegado el momento de «mover ficha», como popularmente se dice; es decir, no podemos reducir nuestro apostolado a los métodos de evangelización que fueron fecundos antaño, y que en el momento presente, a todas luces, son insuficientes. Nuestra Iglesia diocesana necesita abrirse a nuevas experiencias de evangelización (las aportaciones provenientes de la reciente JMJ en Brasil son muy enriquecedoras). Lo cual supone no sólo que acertemos con un itinerario de iniciación cristiana adecuado a esta situación, sino también que sepamos realizar un primer anuncio de Cristo a cuantos ya no conocen su mensaje.

Este reto supone necesariamente una «conversión eclesial» por nuestra parte, para que dejemos hablar a la voz del Espíritu (conversión eclesial, que podrá darse en la medida en que tengamos cada uno nuestra particular «conversión personal»). En este sentido, son dignas de reflexión las siguientes palabras del Papa Francisco: «La enfermedad típica de la Iglesia encerrada es la autorreferencial; mirarse a sí misma, estar encorvada sobre sí misma, como aquella mujer del Evangelio. Es una especie de narcisismo que nos conduce a la mundanidad espiritual y al clericalismo sofisticado, y luego nos impide experimentar la dulce y confortadora alegría de evangelizar». Dicho de otra forma, y sirviéndome de las palabras del Cardenal Bergoglio, en los Ejercicios Espirituales que dirigió a los obispos de la Conferencia Episcopal Española en 2006: «La verdadera conversión siempre es apostólica, es dejar de mirar los propios intereses para mirar los intereses de Cristo Jesús».

ez neskazaharra». Hain zuzenekoa eta ebanjelikoa den hizketa-modu honek konbertsiorako deia egiten digu, geure buruari uko egitea, Aita Santuak berak etengabe erakusten digunez.

Pentekoste Gaubeilan, dei bat egin zuen Frantzisko Aita Santuak, mugimendu apostolikoen, bizitza sagaratuaren errealitate berrien eta laikoen elkarte eta antolamenduen ingurumenean, bere esaldi ezagun horietako bat erabiliz: «Nahiago dut kanpora atera delako istripua izan duen Eliza, gordeta egoteagatik gaixorik dagoena baino». Esaldi honen esanahia nahiko garbi dagoela iruditzen zait: iritsi dela, alegia, gauzak aldatzen hasteko garaia; ezin dezakegula geure apostolutza murriztuarekin jarraitu, garai batean emankorrak izan ziren ebanjelizatze-erak erabiliz, ikusirik une honetan era horiek desegokiak direla garbi-garbi. Ebanjelizatze-esperientzia berrietara zabaldu beharra dauka lekuko gure Elizak (Brasilen izandako JMJ - Mundu Guztiko Gazteen Batzarretik etorritako ekarpen aberasgarrien bidetik). Honek esan nahi du, asmatu egin behar dugula egoera bakoitzari dagokion kristau-sarbidea egiten; eta ez hori bakarrik, Kristoren lehenengo iragarpena egiten ere jakin behar dugula, haren mezua jada ezagutzen ez duten guztiei.

Erronka honek «eliz konbertsioa» eskatzen du nahitaez gure aldetik, Espirituaren ahotsari hitz egiten utz diezaiogun (bakoitzak geure «konbertsio pertsonala» egiten dugun neurrian gertatuko da gure eliz konbertsioa ere). Ikuspegi honetatik, gogoeta egitea merezi dute Frantzisko Aita Santuaren hitz hauek: «Bere baitan itxia dagoen Elizaren gaitza autoerreferentzia da, erreferentziatzat bere burua hartzea eta bere buruari begira egotea alegia, eta, Ebanjelioko emakume haren antzera, konkortua eta zuzendu ezinik gelditzea. Mundutarkeria espiritualera eta klerikalismo sofistikatura eramaten gaituen nartzizismo moduko bat da gaitz hori; eta, ondorioz, galarazi egiten digu ebanjelizatzearen poz gozoa eta bihotz-altxagarria nabaritzea». Beste era batera esanda, eta Bergoglio Kardinalak 2006an Espainiako Gotzainen Batzarrari emandako Gogo Jardunetan esandako hitzak neuretzat erabiliz: «Egiazko konbertsioa apostolutzara eramaten duena dabeti; norberaren interesei begira egoteari utzi eta Kristo Jesusen interesei begiratzea da konbertsioa».

## 2. El contexto social

Entre las intuiciones y aportaciones nacidas del carisma del Papa Francisco, destacan aquellas que traslucen el rostro de una Iglesia con las ventanas abiertas al sufrimiento del mundo entero. No olvidaremos fácilmente que el primero de los viajes de su pontificado fuera de la península italiana, fue a la isla de Lampedusa, auténtico símbolo de la llamada del Tercer Mundo a las puertas de Europa. Allí nos puso en guardia frente a la «globalización de la indiferencia».

Hacemos nuestro el deseo formulado por el Santo Padre: «¡Cómo me gustaría una Iglesia pobre y para los pobres!». Lo peor que podría ocurrirnos es acostumbrarnos a la injusticia y a la falta de caridad, porque sería la manifestación de que hemos perdido nuestras raíces cristianas. Por ello, sin perdernos en metas abstractas, vamos a luchar codo con codo para que nuestra Iglesia diocesana esté siempre muy cerca de los que sufren.

Los retos que tenemos ante nosotros son muy serios: 42.100 eran las personas sin trabajo en Gipuzkoa en el primer trimestre del año 2013. Aunque las estadísticas cifren la tasa de desempleo (13,27%) como la menor en todo el Estado, lo que las 42.100 personas concretas necesitan es trabajo. En este contexto, hacen falta decisiones personales y políticas valientes, y compromisos empresariales y sindicales solidarios, a favor de estructuras económicas justas en las que se respeten los derechos de todas las personas implicadas en el mundo laboral.

Hace falta que nos preguntemos «si la manera en que vivimos y el modo en que han evolucionado las finanzas y la economía son saludables y convenientes».[4] Necesitamos revisar nuestra vida personal y nuestras estructuras sociales para ver «si la sociedad opulenta y de

---

4 *Una economía al servicio de las personas. Ante la crisis, conversión y solidaridad.* Carta Pastoral de los Obispos de Pamplona-Tudela, San Sebastián, Bilbao y Vitoria. Cuaresma-Pascua 2011, 8.

## 2. Gizarteko giroa

Frantzisko Aita Santuaren karismatik sortutako intuizioen eta ekarpenen artean, leihoak mundu guztiko sufrimenduetara zabalik dauzkan Elizaren aurpegia erakusten dutenak dira nabarmenenak. Ez dugu erraz ahaztuko, Italiako penintsulatik kanpo egindako bere aita-santutzaldiko lehenengo irteera Lanpedusa irlara egindakoa izan zela, Hirugarren Munduak Europako ateetara egiten duen deiaren egiazko sinboloa. Han ohartarazi gintuen «axolagabekeriaren globalizazioaz».

Geure egiten dugu Aita Santuak adierazitako gogoa: «Nola gustatuko litzaidakeen Eliza pobrea eta pobreentzakoa!» Gerta dakigukeen gauzarik okerrena zuzengabekeriara eta karitaterik ez izatera ohitzea da; gure kristau-sustraiak galdu ditugun seinalea izango litzateke. Horregatik, helburu abstraktoetan galdu gabe, ahaleginak egingo ditugu elkarturik, lekuko geure Eliza sufritzen dutenengandik hurbil egon dadin beti.

Aurrean ditugun erronkak oso larriak dira: 2013ko lehenengo hiruhilekoan, 42.100 ziren Gipuzkoan langabetuak. Estatistikek gure langabezia Estatu osoko txikiena dela (%13,27a) badiote ere, lana da 42.100 pertsona horiek behar dutena. Egoera honetan, erabaki pertsonal eta politiko ausartak behar dira, eta solidaritatezko eginbideak enpresetako eta sindikatuetako arduradunen aldetik, lan-munduarekin zerikusia duten pertsona guztien eskubideak zainduko dituzten zuzenbidezko egitura ekonomikoak sortzeko.

Galdera egin behar diogu geure buruari, «gure bizimodua, eta finantzek eta ekonomiak izan duten bilakaera mesedegarriak eta komenigarriak»[4] ote diren. Aztertu beharrak dauzkagu geure bizitza pertsonala eta egitura sozialak, «gizarte aberats eta kontsumista honek "gizaki

4. *Ekonomia gizakiaren esanetara. Krisialdian, bihozberritzea eta elkartasuna.* Iruña eta Tutera, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Gotzainen Pastoral Idazkia, Garizuma - Pazkoa, 2011, 8. z.

consumo nos hace "más personas"; si se lapuede considerarjusta, frente al escándalo de la pobreza en el mundo y de las desigualdades económicas entre países y en el interior de los mismos».[5]

La visita que realicé al Vicariato de Meki a comienzos de año, con motivo del «Gesto cuaresmal», así como la reciente estancia y convivencia en las favelas de Río de Janeiro, con ocasión de la Jornada Mundial de la Juventud, me llevan a insistir en las preguntas arriba mencionadas; más aún, cuando sabemos que las ayudas para la cooperación internacional por parte de nuestras administraciones públicas se han reducido drásticamente.

No han sido pocos los miembros de los consejos diocesanos que me han subrayado la destacada labor de Cáritas y de sus voluntarios y trabajadores en este contexto. Con todo, hay quienes proponen que Cáritas atienda, no sólo a quienes acuden a sus servicios, sino también a quienes no llegan a hacerlo. De hecho, hay nuevas formas de pobreza entre estratos sociales que no han llegado a conectar con Cáritas; especialmente entre aquellos gipuzkoanos autóctonos que aunque están pasando dificultades, no acuden a Cáritas; o por las razones que sean, se quedan fuera de sus estructuras de atención.

Por otro lado, me pregunto al igual que muchos de los consejeros, qué gestos concretos y públicos podríamos hacer los cristianos de nuestra Diócesis en favor de los más desfavorecidos. Porque ciertamente, la caridad de la Iglesia está casada con la verdad, y el dar pan al que no tiene no nos quita la responsabilidad de la denuncia profética contra quien le niega ese pan. Y en cualquier caso, como se señalaba en la Memoria de Cáritas del año 2012: «Los cristianos no estamos para repartir, sino para compartir. No hay caridad cristiana –ni justicia social, me atrevo a añadir yo– sin acompañamiento».

5. *Ibid.*

hobe" egiten ote gaituen» ikusteko; eta «zuzentzat har ote dezakegun horrelako gizartea, pobreziaren eskandaluaren aurrean eta herrialdeen arteko eta herrialdeetako bertako [...] alde ekonomiko nabarmenen aurrean».[5]

«Garizumako keinua» zela eta, urte-hasieran Mekiko Bikaritzara egin nuen ikustaldian, eta oraintsu Río de Janeiroko favela edo txabo-letako nire egonaldian eta hango nire elkar-bizitzan, hemen goian aipatutako galderak errepikatzera naramate; eta are gehiago, ikusten dugunean, gure herri-administrazioek murriztu egin dituztela, zorrotz murriztu ere, nazioarteko lankidetzarako laguntzak.

Elizbarrutiko kontseiluetako hainbat kidek azpimarratu dit, nolako lan bikaina egiten ari diren, egoera honetan, Caritas eta bere borondatez Caritasen lanean ari den hainbat kide. Hala ere, bada proposatzen duenik ere, laguntza eske datozenei bakarrik ez, baizik eta bertara etortzen ez direnei ere lagundu beharko liekeela Caritasek. Izan ere, gizarte-mailen artean badira Caritasekin harremanetan jartzera iritsi ez diren beste pobrezia-erak; batez ere, bertakoak diren gipuzkoarrekin gertatzen ari da hori, egoera larria jasaten ari izanik ere, ez baitira Caritasera etortzen; edota badira, beste arrazoiengatik, Caritasek dituen laguntza-egituretatik kanpo gelditzen direnak.

Bestalde, kontseilari askok bezala neuk ere galdera egiten diot neure buruari, zer-nolako keinu zehatz eta publiko egin ote dezakegun geure Elizbarrutiko kristauok kaltetuenen alde. Zalantzarik gabe, Eli-zaren karitatea egiarekin uztartua dago, eta ez duenari ogia emateak ez digu, ogi hori ukatzen dionaren kontra salaketa profetikoa egiteko ardura kentzen. Dena den, Caritasen 2012ko Txostenean adierazten zenez, «Kristauon zeregina ez da banatzea, geuretik ematea baizik.

5. *Ibid.*

En nuestra ayuda viene la Doctrina Social de la Iglesia, arrojando luz sobre nuestros interrogantes, hoy más urgentes si cabe. Hemos de reconocer con humildad que el conocimiento del Magisterio Social de la Iglesia no está suficientemente extendido ni enraizado en nuestras comunidades y que deberemos poner los medios necesarios para paliar esta insuficiencia, de modo que nos sirvamos de este depósito tan rico de la Iglesia, para que nuestro servicio a los pobres sea tal.

El estudio reforzado de la Doctrina Social de la Iglesia tiene durante este curso pastoral, de acuerdo con los objetivos del Programa Pastoral «Dejarnos conducir por Él», un nombre propio: el del Siervo de Dios, D. José María Arizmendiarrieta. El año 2015 celebraremos el centenario del nacimiento del «apóstol de la cooperación». A él le encomendamos en la oración, la situación en la que se encuentran las personas sin trabajo y los esfuerzos de todas las personas implicadas para generar puestos laborales. A él le pedimos también, que sostenga nuestro compromiso social en medio del mundo.

Por otra parte, con respecto a las expectativas de pacificación abiertas en nuestro pueblo, nos reafirmamos en que la contribución principal que estamos llamados a hacer, es la predicación del Evangelio, como auténtica semilla de paz. A pesar de que algunos sostienen que los conceptos evangélicos como el «arrepentimiento», la «petición de perdón» y el «amor al enemigo», son términos exclusivamente propios del creyente y que, por lo tanto, no pueden plantearse en el itinerario hacia la paz de una sociedad laica, nosotros por el contrario creemos que, de una manera especial el «arrepentimiento» y la «petición de perdón», son también conceptos connaturales e implícitos a una ética del bien común. Excluir estos conceptos de las «estrategias» de pacificación, sería tanto como construir un edificio sobre «arena», en lugar de sobre «roca».

En resumen, nuestra gran aportación en materia de pacificación son los valores predicados por Cristo; y se dirige no solamente a quienes

Bidelagun izan gabe ez dago kristau-karitaterik (gehiago esango nuke, ezta zuzentasun sozialik ere)».

Laguntza ematen digu honetan Elizaren Irakaspen Sozialak; argitu egiten ditu, gaur egun agian larriagoak diren gure galderak. Aitortu beharra daukagu apaltasunez, gure kristau-elkarteek ez dutela Elizaren Irakaspen Soziala aski ezagutzen, eta indar gutxiko zainak dituela ezagutza horrek; beharrezkoak diren baliabideak jarri behar ditugu murriztasun horren konponbiderako, Elizaren altxor aberats hau erabiliz, behartsuekiko gure zerbitzua egiazkoa izan dadin.

Elizaren Irakaspen Sozialaren ikasketa sendoago honek izen berezia du urte pastoral honetan, «Berak gida gaitzala» Egiatarau Pastoraleko helburuen arabera: Jainkoaren Zerbitzari Jose Maria Arizmendiarrieta jauna. 2015. urtean ospatuko dugu «lankidetzaren apostolu» izan zenaren jaiotzako mendeurrena. Beraren ardurapean jarri nahi dugu otoitzean, lanik gabe aurkitzen direnen egoera eta lanpostuak sortzeko bidean lanean ari diren guztien ahaleginak. Aldi berean, berari eskatuko diogu, eman diezagula laguntza geure ekinbide sozialean tinko irauteko munduaren erdian.

Bestalde, gure herrian baketzearen inguruan zabaldu den itxaropenari dagokionean, berretsi egiten dugu, Ebanjelioa predikatzea dela batez ere guri eskatzen zaigun ekarpenik nagusiena, hori delako egiazko bake-hazia. Nahiz eta batzuk dioten, «damutzea», «barkamena eskatzea» edota «etsaiak maitatzea» bezalako ebanjeliozko irizpideak fededunentzako bakarrik egiten direnak direla eta, beraz, ezin daitezkeela gizarte laikoaren bake-ibilbiderako eskatu; guk, alderantziz, uste dugu, bereziki «damutzea» eta «barkamena eskatzea» denen ona helburu duen etikaren berezko eskakizun inplizito direla. Irizpide hauek baketzearen «estrategiatik» kanpo uztea etxea «hondar» gainean eraikitzea bezala izango litzateke, «harkaitz» gainean eraikitzeko ordez.

se consideran creyentes, sino a todos los hombres de buena voluntad. En la línea de la constitución «*Gaudium et spes*», del Concilio Vaticano II, en la que se afirmaba que sólo en Jesucristo el hombre descubre su dignidad humana, también nosotros nos atrevemos a afirmar que sólo en Jesucristo, el «Príncipe de la paz», podrá brillar en plenitud y coherencia la paz social.

## 3. Agradecimiento y petición de colaboración

El amor de Dios manifestado en Cristo es lo central de nuestra fe. En el ejercicio de la caridad entre los cristianos (laicos, consagrados, sacerdotes y el propio obispo de la Diócesis) y también para con todos, estamos llamados a anunciar la fe que profesamos y celebramos: «Quien se ha abierto al amor de Dios, ha escuchado su voz y ha recibido su luz, no puede retener este don para sí. La fe, puesto que es escucha y visión, se transmite como palabra y luz [...]. La fe se transmite, por así decirlo, por contacto, de persona a persona, como una llama hace prender a otra llama. Los cristianos, en su pobreza, plantan una semilla tan fecunda, que se convierte en un gran árbol que es capaz de llenar el mundo de frutos».[6]

En este momento, quisiera mostrar mi agradecimiento a todos los diocesanos: a todos los sacerdotes; a todos los religiosos y religiosas; a todos los consagrados y consagradas, y a todos los fieles laicos; gracias por el trabajo realizado en situaciones no siempre favorables, a la hora de celebrar la fe y proclamar el Evangelio. Y quiero expresar mi agradecimiento, de manera particular, a los sacerdotes jubilados que continúan colaborando en tantas parroquias y comunidades, tanto en sus celebraciones litúrgicas como en otras actividades pastorales. Su entrega es un ejemplo, especialmente para los sacerdotes más jóvenes y también para los demás cristianos de la comunidad diocesana.

6. *Lumen fidei*, 37.

Hitz batean, baketzeari dagokionean guk egin dezakegun ekarpen nagusia Kristok irakatsitako balioak dira; eta Kristok ez die beren burua fededuntzat daukatenei bakarrik hitz egiten, borondate oneko gizaki guztiei baizik. Vatikanoko II. Kontzilioko «*Gaudium et spes*» konstituzioak dioenez, gizakiak Jesu Kristogan bakarrik aurkitzen du giza duintasuna; era berean, esan dezakegu, «errege bakegilea» den Jesu Kristogan bakarrik lor daitekeela gizartearen bake osoa eta koherentea.

### 3. Esker ona eta lankidetza-eskaria

Gure fedearen muina Kristogan agertu zaigun Jainkoaren maitasuna da. Kristauen arteko karitate-jardueran (laikoen, sagaratuen, apaizen eta Elizbarrutiko gotzainaren jardueran) eta baita denen artekoan ere, aitortzen eta ospatzen dugun fedea aldarrikatu behar dugu. «Jainkoaren maitasunera zabaldu, haren ahotsa entzun eta haren argia hartu duenak ezin ditzake dohain horiek guztiak beretzat gorde. Fedea, entzutea eta ikustea denez, hitzaren eta argiaren bidez helarazten zaie besteei [...]. Fedea, nolabait esateko, pertsonaz pertsona, ukitzearen bidez, helarazten zaie besteei, su batek bestea pizten duen bezala. Kristauek, beren pobrezian, halako hazi emankorra ereiten dute, mundua fruituz betetzeko gai den zuhaitz handi bihurtzen baita hazi txiki hori».[6]

Une honetan, neure esker ona agertu nahi nieke gure eliztar guztiei: apaiz guztiei; erlijioso eta erlijiosa guztiei; gizon eta emakume sagaratu guztiei, eta fededun laiko guztiei ere; eskerrak, fedea ospatzeko eta Ebanjelioa iragartzeko, askotan hain errazak ez diren ingumarietan, egindako lanagatik. Neure esker ona agertu nahi diet, era berezian, hainbat parrokia eta kristau-elkartetan, bai liturgi ospakizunak egiten, baita beste ekintza pastoraletan ere, laguntzen jarraitzen duten apaiz jubilatuei. Eredugarria da horien buru-eskaintza, batez ere apaiz gazteagoentzat eta baita elizbarruti osoko kristau-elkarteko fededunentzat ere.

6. *Lumen fidei*, 37.

En esta comunidad destacan también los y las catequistas, muchos de ellos desde hace no pocos años, siguen incansables hablando de Jesús a niños que, cada vez en más casos, escuchan su nombre sólo en la hora semanal de la catequesis. Ellos, con su vida y con su entrega pastoral, cumplen el mandato dado por el Señor a sus discípulos, de dejar que los niños se acerquen a Él (*Mt* 19,14). Se lo agradezco muy especialmente.

Como pastor de esta Diócesis, os animo a todos a la perseverancia, consciente de que nuestras fuerzas «son las que son»; pero con la confianza de que el Señor ama a su Iglesia más que nosotros, y de que es capaz de servirse de nosotros como instrumentos suyos, más allá incluso de nuestros límites.

Quisiera, por último, agradecer su trabajo a los voluntarios de la Pastoral de la Salud, de la Pastoral Penitenciaria y de Cáritas, así como a los que en otras delegaciones diocesanas (como la Pastoral de Inmigrantes) sirven directamente a los más necesitados. Ellos son los que, con su renovada inquietud y con su dedicación reconocida, van a impulsarnos, de manera especial durante este curso pastoral, a entregarnos a los demás, como Cristo se entregó por nosotros (*Jn* 13,12-15).

Aipatu elkarte honetan azpimarratzekoak dira katekistak ere, horietako asko hainbat urtetan ari dena; aspertu gabe jarraitzen dute haurrei Jesusez hitz egiten, gero eta kasu gehiagotan asteroko katekesi jardunaldian bakarrik entzuten duten Jesusen izena eta izana ezagutzera ematen. Beren bizitzaz eta pastoraltzako beren eskaintzaz, Jaunak ikasleei emandako agindua, «utzi haurrei Niregana etortzen» (*Mt* 19,14), betetzen dute katekista hauek. Neure esker ona agertzen diet era berezi-berezian.

Elizbarruti honetako artzaina naizenez, adoretu egin nahi zaituztet guztiok lan horretan jarrai dezazuen; konturatzen naiz, «direnak direla» gure indarrak; baina uste osoa dut, Jaunak guk baino gehiago maite duela Eliza, eta gai dela gu haren eskuetan tresna egoki bihurtzeko, gure mugak gainditüz.

Eskerrak eman nahi dizkiet, azkenik, Osasun Pastoraltzan, Espetxe Pastoraltzan eta Caritasen beren borondatez lanean ari direnei; baita elizbarrutiko beste ordezkaritzatan (esate baterako, Etorkinen Pastoraltzan) zuzenean behartsuenei zerbitzu egiten ari direnei. Horiek dira, beren kezka eraberrituaz eta ezaguna den buru-eskaintzaz, urte pastoral honetan bultzada berezia emango digutenak; geure burua besteen zerbitzura jartzen lagunduko digutenak, Jesusek bere burua guretzat eman zuen bezala (*Jn* 13, 12-15).

## III. OBJETIVOS Y MEDIOS PARA EL CURSO PASTORAL 2013-2014

## LA CARIDAD COMO ENTREGA

### 1. Compasivos, comprometidos con la justicia

Con Cristo, que se compadeció de la multitud que no tenía qué comer (*Mc* 8,2), queremos poner al pobre en el centro de nuestras comunidades cristianas (*Mt* 25,40.45). Porque «el Padre quiere que reconozcamos y amemos efectivamente a Cristo, nuestro hermano, en todos los hombres, con la palabra y con las obras, dando así testimonio de la Verdad, y que comuniquemos con los demás el misterio de amor del Padre celestial» (*Gaudium et spes*, 93). Por ello, nos comprometemos a:

- Primen objetivo: *Trabajar para erradicar la pobreza y la exclusión social.*
- Segundo objetivo: *Luchar contra las nuevas formas de esclavitud que padecen los más débiles.*
- Tercer objetivo: *Denunciar activamente la violencia contra las mujeres y educar en la común dignidad del hombre y de la mujer.*
- Cuarto objetivo: *Defender la vida de las personas, desde la concepción hasta la muerte natural.*
- Quinto objetivo: *Acompañar al prójimo que sufre alguna enfermedad, aliviándole el dolor de la soledad.*

## III. 2013-2014 URTE PASTORALERAKO HELBURUAK ETA BALIABIDEAK

## KARITATEA ESKAINTZAREN IKUSPEGITIK

### 1. Errukiorrak eta justiziarekin konprometituak

Gure kristau-elkarteen erdian (*Mt* 24,40.45) behartsuak jarri nahi ditugu, Kristorekin, jatekorik ez zuen jendetzaren errukia izan zuen harekin (*Mk* 8,2). Izan ere, «Aitak, gizaki guztiengan Kristo, gure senidea, hitzez eta egitez ezagutu eta benetan maita dezagula nahi du, honela egiaren lekukotasuna eginez, eta zeruko Aitaren maitasun-misterioa besteekin zabal dezagula» (*Gaudium et spes*, 93). Horregatik, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Lehenengo helburua: *Pobrezia eta gizarte-bazterkeria errauzteko lan egitea.*
- Bigarren helburua: *Ahulenek sufritzen duten esklabotza-modu berrien aurka borrokatzea.*
- Hirugarren helburua: *Emakumeen aurkako gogorkeria aktiboki salatzea eta gizonak eta emakumeak elkarrekiko duintasunean heztea.*
- Laugarren helburua: *Pertsonaren bizia defendatzea, hasi sortzen denetik eta heriotza naturalez hiltzen denera bitartean.*
- Bosgarren helburua: *Gaixotasunen bat duen lagun hurkoari lagun egitea, bakardadearen mina arintzeko.*

- Sexto objetivo: *Potenciar la participación de los cristianos en la Pastoral socio-caritativa: Cáritas, Pastoral de la Salud y Pastoral Penitenciaria.*
- Séptimo objetivo: *Ser una Iglesia acogedora y abierta a todos, particularmente hacia quienes más sufren.*
- Octavo objetivo: *Analizar la realidad social a la luz de la Doctrina Social de la Iglesia.*
- Noveno objetivo: *Profundizar en la aplicación que hizo de la Doctrina Social de la Iglesia D. José María Arizmendiarrieta, con vistas a la celebración del centenario de su nacimiento (1915-2015).*

***Medios***

1. Ampliar el perfil de las pobrezas que atiende la Iglesia, sin dejar de atender los casos de marginalidad (Cáritas, Pastoral de la Salud, Pastoral Penitenciaria, Pastoral de Inmigrantes).

2. Puesta en marcha de un nuevo proyecto de Cáritas en favor de la promoción de la mujer y la defensa de su dignidad (Cáritas, Pastoral Familiar, Centro de Orientación Familiar y Pastoral de Inmigrantes).

3. Puesta en marcha del proyecto de coordinación de Cáritas Internacional, Manos Unidas y Delegación de Misiones para afrontar conjuntamente algunos retos y para orientar y canalizar el voluntariado que quiera integrarse en experiencias misioneras de mayor o menor duración (Vicaría General, Cáritas Internacional, Manos Unidas y Delegación de Misiones).

4. Elaboración de unidades didácticas para el estudio del alumnado de Kristau Eskola y para los alumnos que estudian la asignatura de Religión en la enseñanza pública, en relación a la Doctrina Social de la Iglesia y a la persona del Siervo de Dios,

- Seigarren helburua: *Kristauen parte-hartzea sustatzea gizarte-karitatezko Pastoraltzan: Caritas, Osasun Pastoraltza eta Espetxe Pastoraltza.*
- Zazpigarren helburua: *Abegikorra eta denentzat, bereziki gehien sufritzen dutenentzat, zabalik egongo den Eliza izatea.*
- Zortzigarren helburua: *Gizarteko errealitatea Elizaren Irakasbide Sozialaren argitan aztertzea.*
- Bederatzigarren helburua: *Jose Maria Arizmendiarrieta apaizak Elizaren Irakasbide Soziala nola aplikatu zuen sakontzea, haren jaiotzako mendeurrenaren ospakizuna begi aurrean dela (1915-2015).*

***Baliabideak***

1. Elizak arreta jartzen dien pobrezia-moten ikuspegia zabaldu, bazterketa-kasuei arreta jartzeari uko egin gabe (Caritas, Osasun Pastoraltza, Espetxe Pastoraltza, Etorkinen Pastoraltza).

2. Caritasen proiektu berri bat abian jarri emakumearen promoziorako eta haren duintasunaren defentsarako (Caritas, Famili Pastoraltza, Familientzako Aholku Etxea, Etorkinen Pastoraltza).

3. Nazioarteko Caritasen, Esku Batuen eta Misio Ordezkaritzaren arteko koordinatze-proiektua abian jarri, erronka batzuei elkarren artean aurre egiteko, eta iraupen handiagoko nahiz txikiagoko misiolari-esperientziatan parte hartu nahi duten borondatezko lagunei argibideak eman eta horien asmoak bideratu (Bikaritza Nagusia, Nazioarteko Caritas, Esku Batuak eta Misio Ordezkaritza).

4. Ikasgaiak prestatu Kristau Eskolako ikasleentzat eta irakaskuntza publikoan Erlijioa ikasgai duten ikasleentzat, Elizaren Irakaskuntza Sozialaren eta Jainkoaren Zerbitzari Jose Maria Arizmendiarrieta apaizaren inguruan (Idazkaritza Soziala,

D. José María Arizmendiarrieta (Secretariado Social, Delegación de Enseñanza y Comisión Postuladora).

5. Presentación de la Causa de Canonización del Siervo de Dios, D. José María Arizmendiarrieta en todos los arciprestazgos y preparación de una exposición diocesana sobre su figura y su obra, con paneles informativos (Vicaría de Pastoral y Comisión Postuladora).

## 2. Reconciliados, constructores de la paz

Reconciliados en Cristo (*Col* 1,20), queremos hacer posible la reconciliación en nuestro pueblo. En su nombre, proponemos la reconciliación con Dios (*2Co* 5,20) como camino para la reconciliación entre los hombres y entre los pueblos. Estamos llamados a conocer la dicha de quienes construyen la paz, «porque ellos serán llamados hijos de Dios» (*Mt* 5,9). Por ello, nos comprometemos a:

- Primer objetivo: *Orar, educar y trabajar por la reconciliación y la convivencia pacífica en nuestro pueblo («Una Iglesia al servicio del Evangelio», 32).*
- Segundo objetivo: *Tomar conciencia de las realidades de violencia y de injusticia que afectan a otros pueblos del mundo.*
- Tercer objetivo: *Comprometernos en la denuncia de la injusticia y en el anuncio de la conversión personal y del perdón.*

### *Medios*

1. Reafirmar con acciones concretas nuestra fe en la eficacia de la oración por la paz y la reconciliación (cada cristiano y todas las comunidades).
2. Vivir la celebración del sacramento de la Reconciliación y del sacramento de la Eucaristía como pasos necesarios y previos a nuestra contribución a la pacificación social (cada cristiano y todas las comunidades).

Irakaskuntza Ordezkaritza eta Santugaitzarako Proposamen Batzordea).

5. Jainkoaren Zerbitzari Jose Maria Arizmendiarrieta apaiza Santu Aitortzeko Kausa aurkeztu artziprestalde guztietan, eta haren irudiari eta obrari buruz erakusketa prestatu elizbarrutian, iragarpen-taula bidez (Bikaritza Pastorala eta Santugaitzarako Proposamen Batzordea).

## 2. Adiskidetuak eta bakegileak

Kristorengan adiskidetuak (*Kol* 1,20), gure herriaren adiskidetzea ahalbidetu nahi dugu. Beraren izenean, Jainkoarekin adiskidetzea proposatzen dugu (*2Ko* 5,20), gizakion arteko eta herrien arteko adiskidetzeko bide modura. Bakegileen zoriona ezagutzera deituak gaude, «haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko» (*Mt* 5,9). Horregatik, honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Lehenengo helburua: *Otoiz egitea eta heziketan lan egitea, gure herriaren adiskidetzearen eta bizikidetza baketsuaren alde* («*Eliza Ebanjelioaren Zerbitzura*», 32).
- Bigarren helburua: *Munduko beste herrialdeei erasaten dieten gogorkeriazko eta injustiziazko egoeren kontzientzia hartzea.*
- Hirugarren helburua: *Injustiziaren salakuntzan eta norberaren bihozberritzearen nahiz barkamenaren aldarrikapenean konprometitzea.*

### *Baliabideak*

1. Bakearen eta adiskidetzearen alde egindako otoitzaren eraginkortasunean dugun fedea berretsi ekintza zehatzen bidez (kristau bakoitza eta kristau-elkarte guztiak).
2. Adiskidetzearen sakramentua eta Eukaristiaren sakramentua ospatu eta bizi, beharrezko eta aurreko pauso bezala bakegintza

3. Potenciar la labor del Secretariado Social, con la integración en el mismo de cristianos de diferentes sensibilidades sociales (Secretariado Social y Señor Obispo).

4. Formación personal y comunitaria: discernimiento del patrimonio común de los católicos, diferenciándolo de las legítimas y distintas sensibilidades políticas (Secretariado Social, Consejo de Arciprestes y Consejo Pastoral Diocesano).

5. Subrayar en la Catequesis, en la predicación y en los pronunciamientos públicos, las aportaciones específicas del Evangelio en la causa de la pacificación (Señor Obispo, Consejo de Arciprestes, Secretariado Social y Delegación de Catequesis).

6. Potenciación de la asignatura de Religión en la escuela, como una de las grandes contribuciones educativas en favor de la cultura de la paz (Delegación de Enseñanza y Consejo de Arciprestes).

7. Presentación, como ejemplo del perdón a los enemigos y como modelo de reconciliación, de los tres mártires originarios de nuestra Diócesis que serán beatificados el 13 de octubre de este año en Tarragona: Los Hermanos de La Salle, Alejo Andrés (Azpeitia) y Julian Alberto (Irún), y el Hermano benedictino, Eugenio María (Lazkao). Celebración de la Santa Misa en acción de gracias por su beatificación, así como de conferencias en sus parroquias de origen en torno a la contribución del martirio cristiano a la paz (Vicaría de Pastoral, Consejo de Arciprestes, Párrocos y comunidades de origen de los mártires y Señor Obispo).

8. Organización de una peregrinación diocesana a Roma, con motivo de la canonización del beato Juan XXIII y del beato Juan Pablo II, subrayando en su preparación y durante la peregrinación, el legado magisterial que ambos nos dejaron sobre la paz (en especial, la encíclica «*Pacem in terris*» del beato Juan XXIII).

sozialerako gure ekarpenerako (kristau bakoitza eta kristau-elkarte guztiak).

3. Idazkaritza Sozialaren lana indartu, ikuspegi sozial desberdineko beste kristau batzuk sartuz (Idazkaritza Soziala eta Gotzain jauna).

4. Heziera pertsonala eta elkartekoa sustatu: katoliko guztiena den ondarearen bereizkuntza eginez, eta legezkoak eta desberdinak diren ikuspegi politikoetatik bereiziz (Idazkaritza Soziala, Artzipresteen Kontseilua eta Elizbarrutiko Pastoral Kontseilua).

5. Katekesian, predikazioan eta jendaurreko adierazpenetan, Ebanjelioak bakegintzarako ematen dizkigun argibide bereziak azpimarratu (Gotzain jauna, Artzipresteen Kontseilua, Idazkaritza Soziala eta Katekesi Ordezkaritza).

6. Erlijioaren irakasgaia indartu ikastetxeetan, hori delako bakegintzako kulturaren aldeko heziera-ekarpenik handienetakoa (Irakaskuntza Ordezkaritza eta Artzipresteen Kontseilua).

7. Urriaren 13an Tarragonan dohatsu aitortuak izango diren Alejo Andres (Azpeitikoa) eta Julian Alberto (Irungoa), Anaia salletarrak, eta Eugenio Maria (Lazkaokoa), Anaia beneditarra, gure Elizbarrutiko hiru martiri hauen aurkezpena egin, etsaiei barkatzearen eta adiskidetzearen eredu gisa. Meza Santua ospatu, dohatsu aitortuak izateagatik eskerrak emateko, eta hitzaldiak eratu jatorrizko beren parrokietan, bakea lortze bidean kristau -martiritzaren ekarpena azalduz (Bikaritza Pastorala, Artzipresteen Kontseilua, martirien jatorrizko Parroki arduradunak eta kristau-elkarteak, eta Gotzain jauna).

8. Elizbarrutiko erromesaldia antolatu Erromara, Joan XXIII.a dohatsua eta Joan Paulo II.a dohatsua santu aitortuak izango direnean, biek bakeari buruz utzi ziguten irakaspen-ondarea –batez ere, Joan XXIII.aren «*Pacem in terris*» entziklika– azpimarratuz, bai erromesaldiaren prestaerakoan bai erromesaldian bertan.

## 3. Creados, responsables con la creación

Toda la creación gime con nosotros, a la espera de la Redención, (*Rm* 8,22), para recuperar la bondad primera que Dios reconoció en su obra (*Gn* 1,31). Como nos enseña el Papa Francisco, «la fe, revelándonos el amor de Dios, nos hace respetar más la naturaleza, pues nos hace reconocer en ella una gramática escrita por Él y una morada que nos ha confiado para cultivarla y salvaguardarla».[7] Por ello, queremos ver realizados los siguientes objetivos:

- Primer objetivo: *Contemplar la creación como don y confesar a Dios como el Creador.*
- Segundo objetivo: *Comprometernos en el cuidado de todo lo creado, con la conciencia de la incomparable dignidad de la persona, creada a imagen y semejanza de Dios.*

### *Medios*

1. Educar en la austeridad a los niños y a los jóvenes (Delegación de Catequesis, Delegación de Familia y Secretariado de Juventud).
2. Organización de charlas específicas sobre el tema de la austeridad (Secretariado Social).
3. Participación de los cristianos en proyectos ecologistas no confesionales que tengan objetivos confluyentes con la sensibilidad ecológica cristiana (cada uno).
4. Visualizar gestos concretos en favor del compromiso ecológico (cada arciprestazgo y cada parroquia).

---
7. *Lumen fidei*, 55.

## 3. Kreazioko sorkari gara eta kreazioarekin arduratsu

Kreazio osoa intzirika dago gurekin, Jainkoak noiz askatuko gaituen zain (*Erm* 8,22), Jainkoak bere kreazioan ezagutu zuen ontasuna berreskuratzeko zain (*Has* 1,31). Frantzisko Aita Santuak irakasten digunez, «fedeak Jainkoaren guganako maitasuna agertzen digu eta natura gehiago errespetatzera eragiten; hain zuzen, berak naturan idatzitako gramatika ezagutarazten digu, eta natura hori landu eta gorde behar dugun bizitokia dugula adierazten».[7] Horregatik, lortuak ikusi nahi ditugu helburu hauek:

- Lehenengo helburua: *Kreazioa dohain gisa kontenplatzea eta Kreatzaile aitortzea Jainkoa.*
- Bigarren helburua: *Sorkari guztien zainketan konprometitzea, Jainkoaren irudiko eta antzeko den pertsonaren duintasun paregabearen kontzientzia harturik.*

### *Baliabideak*

1. Haurrak eta gazteak neurritasun apalean hezi (Katekesi Ordezkaritza, Familiaren Ordezkaritza eta Gazteen Idazkaritza).
2. Neurritasun apalari buruzko hitzaldiak antolatu (Idazkaritza Soziala).
3. Kristauen ekologi ikuspegiarekin bat datozen eta helburu berdintsuak dituzten ekologi proiektu ezkonfesionaletan kristauen parte hartzea bultzatu (nor bakoitza).
4. Ikusgai jarri konpromiso ekologikoaren aldeko keinu konkretuak (Artziprestalde bakoitza eta parrokia bakoitza).

7. *Lumen fidei*, 55.

## IV. CONCLUSIÓN y PROPUESTA

Somos conscientes de que el hecho de que este próximo curso vayamos a abordar un capítulo concreto de nuestro Plan Pastoral Diocesano, no nos puede hacer perder de vista la perspectiva global de la acción evangelizadora de la Iglesia. Obviamente, se trata de mantener esa visión de conjunto, y no de circunscribirnos a unos determinados aspectos del Plan Pastoral. Pero también es cierto que una visión global ha de tener la capacidad de acercar el «zoom» a lo específico y concreto, que en este curso estará centrado en los siguientes campos: la Justicia social, la Reconciliación y la Ecología.

Ahora bien, teniendo en cuenta el deseo expresado por un buen número de miembros del Consejo Pastoral Diocesano, de buscar fórmulas para poder discernir sobre la visión global de la vida pastoral, y aprovechando, al mismo tiempo, el momento de gracia que vivimos con la llegada del Papa Francisco, propongo que en todos nuestros organismos pastorales diocesanos se dé, a lo largo de este curso 2013-2014, un amplio diálogo al respecto, tomando como punto de partida para ello, el documento pastoral de APARECIDA, elaborado por el CELAM en 2007, y del que fue redactor el Cardenal Bergoglio (Arzobispo de Buenos Aires, en aquel momento). En este documento se aborda detenidamente un diagnóstico global de la realidad pastoral, así como las prioridades a remarcar de cara a emprender una Nueva Evangelización.

Es obvio que en este documento, existen algunos aspectos específicos del contexto latinoamericano, que no son aplicables a nuestro contexto cultural, pero no me cabe duda de que la mayor parte del panorama pastoral expuesto en el citado texto, puede resultar muy iluminador para nosotros. Recurrimos a este material como punto de

## IV. BUKAERA eta PROPOSAMENA

Oharturik gaude, datorren urte pastoral honetan gure Elizbarrutiko Egitasmo Pastoralaren atal bat landuko dugula; baina horrek ez gaitu eraman behar Elizaren ekintza ebanjelizatzailearen ikuspegi osoa begi-bistatik galtzera. Ez dugu begirada orokorra galdu behar, jakina, eta ez dugu Egitasmo Pastoralaren alderdi jakin batzuetara mugatu behar. Baina, egia da baita ere, ikuspegi orokorrak izan behar duela gaitasuna, «zoom»-a jarri eta berezia eta konkretua dena hurbiltzeko; eta hurbileko horrek urte honetan alor hauek izango ditu arretagai: Justizia soziala, Adiskidetzea eta Ekologia.

Hala ere, pastoralgintzaren ikuspegi orokorraren azterketa egitea eskatzen zuen Elizbarrutiko Pastoral Kontseiluko hainbat kideren gogoa aintzakotzat hartuz, eta Frantzisko Aita Santua dugunez geroztik bizi dugun grazi unea baliatuz, proposamen hau egiten dut: elizbarrutiko gure antolakuntza pastoral guztietan, 2013-2014 urte honetan, elkarrizketa zabala egitea pastoralgintzaren ikuspegi orokorra gai harturik. Horretarako, CELAMek 2007an egindako APARECIDAko idazki pastorala hartuko dugu abiapuntu; une hartan Buenos Aireseko Gotzaina zen Bergoglio Kardinala izan zen dokumentu horren idazlea. Errealitate pastoralaren diagnosi orokorra egiten da luze-zabal aipatu dokumentuan, eta Ebanjelizatze Berriari ekitean azpimarratu beharreko lehentasunak markatzen dira.

Dokumentu honetan, jakina, latino-amerikar egoerari dagozkion alderdi berezi batzuk aipatzen dira; horiek ez dute lekurik gure egoera kulturalean, baina ez dut dudarik egiten, idazki horretan aipatzen den ikuspegi pastoralaren zatirik handiena oso argigarria gerta daitekeela guretzat. Erreferentzi gisa hartzen dugu material

referencia, para que aprendiendo de él, podamos nosotros abordar en el futuro una planificación pastoral integral.

Confío plenamente en que las intuiciones del actual Papa Francisco, que están latentes en todo este documento, nos puedan ayudar a toda la Diócesis de San Sebastián a emprender con decisión el camino de la Nueva Evangelización.

Donostia-San Sebastián, 15de agosto de 2013
*Solemnidad de la Asunción de María a los Cielos*

† **José Ignacio Munilla**
Obispo de San Sebastián

hau, hortik ikasiz, geure etorkizunaren plangintza pastoral osoa egin ahal dezagun.

Ez dut inolako zalantzarik, idazki honetan guztian sumatzen diren Frantzisko Aita Santuaren intuizioak lagungarri izango ditugula Donostiako gure Elizbarrutian, Ebanjelizatze Berriaren bideari erabaki osoz ekiteko.

Donostia, 2013ko abuztuaren 15a
*Andre Mariaren Zeruratzea*

† **Jose Ignazio Munila**
Donostiako Gotzaina

Septiembre 2013 iraila

idatz

Elizbarrutiko Argitaldaria / Editorial Diocesana
Urdaneta, 10
20006 Donostia - San Sebastián
Tel. 943 465 326 / Fax 943 470 363
idatz@idatz.euskalnet.net
www.idatz.com

Depósito legal: SS-1.235-2013

Imprime: FASTPRINT- IGARA - San Sebastián